

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

29/2019 Mozioa, martxoaren 28koa, Atauriko asfaltoen meategia berreskuratzeari eta balioesteari buruz, eta Atauriko Administrazio Batzarra meategi-gune horretan egingo diren esku-hartzeetako subjektu aktibo gisa aitortzeari buruz, tartean diren gainerako administrazio-batzarrekin batera eta Arraia-Maetzuko Udalarekin batera

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko martxoaren 28an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

29/2019 Mozioa, martxoaren 28koa, Atauriko asfaltoen meategia berreskuratzeari eta balioesteari buruz, eta Atauriko Administrazio Batzarra meategi-gune horretan egingo diren esku-hartzeetako subjektu aktibo gisa aitortzeari buruz, tartean diren gainerako administrazio-batzarrekin batera eta Arraia-Maetzuko Udalarekin batera.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Atauriko Administrazio Batzarra subjektu aktibo gisa aitortu dezala, tartean diren gainerako administrazio-batzarrekin batera eta Arraia-Maetzuko Udalarekin batera, Atauriko meategi-gunean garatu daitezkeen proiektuen diseinuan eta definizioan, eta bermatu dezala parte hartuko duela sortuko diren erabakitze-esparruetan, bai eta aipaturiko instituzioak unoro jakinaren gainean egon daitezela.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete konpromiso argia agertu dezatela Atauriko meategi-gunea berreskuratu eta balioesteari, eta horretarako aurrekontu-partidak bideratu ditzatela, edozein dela ere Interreg POCTEFA programara aurkeztearen emaitza.

3. Arabako Batzar Nagusiek Aldundiari eskatzen diote zen, Atauriko meategi-gunea berreskuratzeko eta balioesteko edozein proiektutan, kontuan hartu daitezela ingurumen- eta jasangarritasun-irizpideak, bai eta kokatzen den inguruaren errealitatea.

4. Mozio hau bidaliko zaie Atauriko Administrazio Batzarrari, Arraia-Maetzuko Udalari, Kanpezu-Arabako Mendialdea Kuadrillari eta Eusko Jaurlaritzari.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 28a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA